

Zuzendaritza
FERNANDO BERNUÉS

HEISENBERG

SIMON STEPHENSena



TANTTAKA
teatroa



SINOPSISIA

GEORGIE BURNS, 42 urteko emakume bat,
eta *ALEX PRIEST*, 75eko gizon bat,
Londresko Saint Pancras geltokian ezagutuko dira.
Atzetik ikusita, Georgiek usteko du Alex bere aita dela
(urtebete da hil zela) eta eroaldi "absurdo" batean,
musu emango dio garondoan.
Topaketa berotzaile hori izango da
biei bizitza aldatuko dien jolas zoragarri baten hasiera.

HEISENBERG lanarekin,
SIMON STEPHENSEK gizakion arteko konexioa
zein ziurgabea eta komikoa izan daitekeen
erakutsi nahi digu.

FITXA ARTISTIKOA

Egilea

SIMON STEPHENS

Itzulpena

AIZPEA GOENAGA

Antzezleak

RAMÓN AGIRRE, NAIARA ARNEDO

Zuzendaritza eta espazio eszenikoa

FERNANDO BERNUÉS

Zuzendari laguntzailea

ERIZ ALBERDI/ ANDREA GALLEGO

Argiztapen diseinua

DAVID BERNUÉS

Jantzitegia

ANA TURRILLAS

Musika

HOUSE OF MIRRORS albumetik aterea

JOHAN SEBASTIAN JAZZ

IÑAKI SALVADOR - ALEXIS DELGADO duoa

Koordinazio teknikoa

Argazkilaritza

ACRÓNICA PRODUCCIONES

GORKA BRAVO

Administrarritza

Karteleko argazkia

MAITE GORROTXATEGI

MIKEL MARTINEZ

Ekoizpen exekutiboa

ANE ANTOÑANZAS

Ekoizpena

PAOLA EGUIBAR

Banaketa

PORTAL71

SIMON STEPHENS antzerkigile ospetsuaren bereizgarritasunik aipagarriena bizitza arruntak ezohiko egiteko duen trebezia da. Inteligentzia, samurtasuna eta oihartzun emozionalez josia dago bere idazkera.

Besteak beste, Mark Haddonen *El curioso incidente del perro a media noche* eleberrian oinarritutako antzerkirako egokitzapenagatik ezaguna da.

Marianne Elliottek zuzenduriko egokitzapenak zazpi Olivier sari irabazi zituen 2013an eta bost Tony sari 2015ean. Bietan ere Antzerki Obra Berri Onenaren saria tartean. Orduetik munduko eszenatoki nagusienetan ekoiztua izan da lana.

Beste lan batzuk: *Vanya, Morning sun, Light falls, Heisenberg, Song from far away, On the shore of the wide world* (Olivier saria Obra Berri Onenari 2006an), *One minute* edo *Country music*. Bere azken lana, *Cornelia street*, Mark Eitzelen abestiekin, New Yorkeko Atlantic Theatre-en estreinatu zen 2023ko otsailean.

Simonek Royal Court Playwright 's Podcast-eko hiru serie aurkeztu ditu eta bere *A working diary* liburua Methuen-ek argitaratua izan da.

Londresko Royal Courteko kide, Hammersmitheko Lyric-en erresidentzia artistikoa egina, gaur egun gidoigintzako irakasle da Manchesterreko Unibertsitate Metropolitanoan eta Kopenhageko Danimarkako Arte Eszenikoen Eskolan.

Irratirako eta pantailarako ere idatzi du. Bere gidoien artean daude *Dive* (2010) eta garapen fasean dagoen bere *Motortown* obraren egokitzapena. Gaur egun Clio Barnard zuzendariarentzat gidoi bat eta Mammoth Pictures-entzat serie bat idazten ari da.




FERNANDO BERNUÉS Tanntaka Teatroa

ekoiztetxearen sortzaileetako bat izanik, arrakastaz aritu da antzerkian, zinemari eta telebistan. Arte eszenikoetan erreferente bat da gaur egun bai zuzendaritzan bai eta eszenografiaren diseinuan.

Bere lan esanguratsuenen artean daude *El Florido Pensil, Novecento, El pianista del océano, Paradero desconocido, La dona justa, Contra el viento del norte, Soinujolearen semea, Muxua, Uda gau bateko ametsa* (Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko proiektu goraiatua), *Soka, Utzi zure mezua seinalearen ondoren, Sisiforen paperak, Semea Pixka bat motelago dabil soilik* edo *Esnearen kolorekoa*, besteak beste.

Eszenografo azkarra eta irudimentsua, egile-zigilua ematen die bere lanei. Poetika eta lengoia propioarekin espazioak sortzeaz gain, eszenografiak ere sortzen ditu, antzezleen jantziekin, argiztapenarekin, soinuarekin eta mugimenduarekin primeran batzen direnak. *Último tren a Treblinka* edo *Sexberdinak* bezalako proiektu jakin batzuetan, espazio eszenikoa interpreteen eta ikusleen esperientzien laborategi bihurtzeko gai izan da.

Max sarietan eszenografia onenaren saria jasotzeko hautagaia izan da *Gernikatik New Yorkera Berlinetik pasatuz* lanagatik eta finalista *Gauekoak* lanagatik.



Gaur egun, Max sarietan, eszena-zuzendaritza onenaren eta espazio eszenikoaren diseinu onenaren sarirako hautagaia da, *Ur irekietako igerilaria* lanagatik.

RAMÓN AGIRRE LASARTE

Donostian jaio zen 1954an. Arkitektura ikasketak egin zituen Valladoliden eta Donostian. Antzerkiaren deia indartsua izan zen ordea, eta aktore lanetan jardun du azken 40 urtetan.

Antzerkia, telebista eta zinema txandakatu izan ditu. Euskal Herriko hainbat antzerki konpainietan egin du lan (Bederen, Zintzilik, Txalo, Tanttaka, Théâtre des chimères, Hika...); EiTb-ko eta Espainiako Telesail ugaritan parte hartu du, eta hainbat plataformetako ekoizpenetan aritu da azken urteotan.

Zinemari dagokionean Euskal Herriko zuzendari onenekin aritu da eta baita nazioartean ezagunak diren zinegileekin ere. Haneke, Almodóvar edo Trueba, besteren artean.



NAIARA ARNEDO

Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean (TAE) ikasketak amaitu eta hainbat ikastaro egin ondoren (Carles Castillo, Iñaki Aierra, Alberto Gorritiberea, Heidi Steinhard, Juanma Cifuentes, Jesus Font, besteak beste), 2005ean egin zuen debuta antzerki profesionalean, Fernando Bernuések zuzendutako *Nasdrovia Chéjov* lanean.

Parte hartu duen antzeleranen artean: *Comida Para Peces*, *Tatami*, *Uda gau bateko ametsa*, *Dublindarrak* eta *Erlauntza*, besteak beste.

Zineman, *Erlauntza* eta *Amaren Eskuak* filmetan parte hartu du, biak ala biak Mireia Gabilondok zuzenduak. Nabarmentzekoa da, bestalde, José Mota eta Pepe Villuela protagonista dituen *García y García* filmean egin zuen rola, baita hainbat film labur eta telesailetan egin dituenak ere, hala nola *Mi querido Klikowsky* (EiTB2), *Goenkale* (EiTB1), *Qué vida más triste* (LaSexta) eta *Los exitosos Pells* (Cuatro).







HEISENBERG, BI HITZ:

HEISENBERG, batez ere, "bikote bitxi" garaikide baten ustekabeko harremanean murgiltzen gaituen testu bikaina da.

"Ziurgabetasunaren printzipioa" 1927an formulatu zuen Werner Heisenberg fisikari alemanak, eta horixe hartu du oinarri egileak ia antagonikoak diren bi pertsonaiaren arteko istorio berezi hau garatzeko.

Emakumea aldakorra, kartsua, dibertigarria eta, tarteka, iruzurtia da... Gizona hura baino dezente helduagoa da, lasaia -agian baita aspergarria ere-, txukuna eta sistematikoa, eta ez du itxaropen handirik berehalako etorkizunean.

Baina biak elkartzean, emaitza "komedia erromantiko" harrigarri -eta ez oso ortodoxo- bat izan daiteke.



Tratamendu dramaturgikoa oso eraginkorra eta burutsua da,
istorioa narrazioan aurrera egiten eta harremanaren funtsezko uneetan
kokatzen laguntzen diguten eszena oso zuzenen bidez aurkezten baitu, beharrezkoak ez
diren testuinguruari buruzko daturik eta itzulingururik gabe,
eta aldi berean, kontakizunak aurrera nola egiten duen
eta nola korapilatzen den (diren) erakusten digu.

Eszenaratzeari dagokionez, egileak espazio biluzian lan egitea
proposatzen digu: hurbilketa errealista bat saihestuz, beharrezko gutxieneko
eszenografia-elementuak erabiltzen dira.



Azkenik, ezinbestekoa da emankizunean parte hartuko duten aktoreak goraiatzea.
Alexen eta Georgieren roletan Ramón Agirre eta Naiara Arnedo izatea berme izugarria da.
Bi aktore bikain, publiko oso zabalak erakarri ditzaketenak.

🌀 *Fernando Bernués* 🌀